

UDALAREN IKASTETXEETAKO ARETO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

3. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua.- 1) Arau honetan ezarritako prezioak eskatzen dira Udalaren kirol-instalazioak eta ikastetxeetako aretoak eta instalazioak kirolaren, kulturaren, hezkuntzaren, gizartearen zein komunitatearen, politikaren eta erlijioaren esparruetako bilerak eta jarduerak egiteko erabilera baimenduaren ondorioz eman beharreko zerbitzuen truke.

2) Ikastetxeetako instalazioak eskola-ordutegitik kanpo erabiltzeko baldintza hauek bete behar dira: ikastetxeek instalazio horiek behar ez izatea beren jarduerak egiteko eta beharrak asetzeko, tokia eskatutako jarduera egiteko aproposa izatea eta proposatutako jarduera 2.1) artikuluan aurreikusitakoari egokitzea. Horiek horrela, aplikatu beharreko foru-arauekin bat, lehentasuna izanen dute ikastetxeek beraiek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak, ikasleen elkarteek eta ikasleen gurasoen elkarteek antolatutakoek eta Iruñeko Udalak antolatutakoek.

Ikastetxeetan, oro har, ez da baimenik emanen instalazioak festa-jardueretarako erabiltzeko, hala nola bazkari, dantzaldi, kontzertu, feria, azoka eta horrelakoetarako, ezta instalazioak kasuan kasuko lokal edo instalazioko udal-langileen lan-ordutegitik at eta udako oporretan arratsaldean erabili behar dituzten jardueretarako ere, salbu halakoak egiteko langilerik izan eta gehigarri bat ordaintzen bada, erabilera-prezio publikoaren gainetik, tarifa-eranskinarekin bat. Lan-ordutegi hori kasuan kasuko urtean indarra duena izanen da, organo eskudunak onetsitako egutegiarekin bat.

Halaber, ez dira jarduera iraingarriak baimenduko, baldin eta ekintza terroristen biktima izan diren pertsonendako edo kolektiboendako zein genero-indarkeriaren biktimendako mingarriak badira, edo giza eskubideak gutxiesten badituzte.

3) Aurreikusi ez diren erabilerak salbuespen gisa baimentzen ahalko dira, behar bezala justifikaturik, egin beharreko jarduera Udalaren interesekotzat jotzen bada, behin Herritarren Aferen Batzordeak entzunda.

4) Baimena jasotzen duen pertsona edo entitatearen betebeharra izanen da erabilera indarreko arauak ezarritako baldintzekin bat gauzatzea. Baldin eta erabilerak kalte edo narriadurarik eragiten badie instalazioei eta lokalei, prezio publikoa ordaindu behar duenak behar bezala leheneratu edo konpondu beharko ditu haiek, halako eran non instalazioak eta lokalak erabili baino lehenago zeuden egoera berean utzi beharko baititu, edo, bestela, Udalak hori dela-eta egin beharreko gastuak oro ordaindu.

Pertsona fisiko edo entitate eskatzaileek egunean eduki behar dituzte zerga- eta lege-betebeharrak, haien izaeraren arabera dagozkienak, edo/eta aginduzko agiriak aurkeztu Udalak hala eskaturik.

5) Edonola ere, lagapenaren baldintzak dagokion organo eskudunak onetsiko duen baimenean zehaztuko dira, eta baimen horretan arautzen ahalko da eskatzailearen betebeharra, berme nahikoa eratzeko, lagatutako instalazioetan gerta daitekeen suntsipenari edo narriadurari erantzute aldera. Hala gordailua itzultzeko nola hura onartutako erantzukizunei aplikatzeko, txostena egin beharko da aurrez, erabili diren instalazioak eta lokalak nola gelditu diren azalduta.

Ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- 1) Udalak instalazioak eta lokalak erabiltzeko nor baimendu eta pertsona edo entitate horiek guztiek izanen dute ordaintzeko betebeharra.

2) Ez da prezio publikorik eskatuko pertsona edo entitate eskatzaileak justifikatzen badu honako kasu hauetako bat gertatzen dela:

a) Ohiko eskola- eta kirol-jardueretarako erabiltzen diren kasuan, baldin eta jarduerak kasuan kasuko ikastetxeko IGEak –bere helburu eta jardunen baitan– edo Udalak berak sustatuak badira, salbuespenez beste ikastetxe bateko patioaren erabilera baimentzen den kasua barne hartuta.

b) Ikastetxeetako lokalak eta instalazioak erabiltzea haien estatutuetan helburu gisa honako hauen interesak defendatu eta sustatzea jasota dituzten fundazioek eta elkarteek: beren baitan beste pertsonak hartzen dituzten familienak zein familia horiek hartutako pertsonenak, terrorismo-ekintzak edo genero-indarkeria pairatu dituzten biktimenak, bai eta Giza Eskubideen defentsa eta sustapena –eta halakoen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna– dituztenak ere.

c) Lokalak edo instalazioak Nafarroako Gobernuak erabiltzea, udal-organoko eskudunak interesekoa jotzen badu egin beharreko jarduera.

d) Bestelako entitateek lokalak edo instalazioak erabiltzea, baldin eta erabilerak Iruñean hezkuntza-, gizarte- eta kultura- edo kirol-sustapen eraginkorra lortzearren Udalaren interesa justifikatu behar duen hitzarmen, kontratu edo udal-organoko eskudunaren beste erabaki edo ebazpen baten esparruan egiten badira.

3) Nolanahi ere, prezio publikoak eskatuko dira artikuluko honen 2) apartatuan aurreikusitako kasuetan, baldin eta pertsona edo entitate eskatzaileak ez badu jakinarazten baimendutako jarduera eten egin dela, halakorik gertatuz gero, eta, horrenbestez, lagapenari uko egiten zaiola, jarduera hasteko aurreikusitako eguna baino bost egun balioduneko epean jakinarazi ere.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

4. artikulua.- 1) Ikastetxeetako lokalak eta instalazioak erabiliz gero, prezio publikoa instalazioen erabilera-lagapenaren jakinarazpenean adierazitako moduan ordaindu beharko da.

2) Indarra duten udal-arauekin bat, ikastetxeetako aretoak eta instalazioak erabiltzeko, areto eta instalazio horiek noiz erabiltzeko diren eta, gutxienez, 7 egun lehenago aurkeztu beharko dira haiek erabiltzeko eskabideak, eta arrazoi nahikoa izan daiteke erabilera ukatzeko erabiltzeko eskaera gutxieneko epe hori bete gabe aurkeztea.

Prezio publikoa Udaleko Diruzaintzan ordaindu beharko da, betiere aretoa edo instalazioa erabili baino lehen, eta behin Udalak espresuki erabiltzeko baimena eman eta gero. Udaleko Diruzaintzak ordaindu izana ziurtatzeko agiria emanen du eta agiri hori kasuan kasuko areto edo instalazioaren arduradunari aurkeztu beharko zaio, baimendutako erabileraren baldintza gisara.

3) Baldin eta espazioen lagapenaren hartzailerek sarrerak kobratu behar badizkiete ikusleei, halakoak izanez gero, edo kuotak antolatutako jardueretan parte hartzen dutenei, berariazko baimena eskatu beharko dute, zenbat kobratu behar duten eta kopuru horietarako, eta justifikatu kopuru horiek baimendutako jardueren kostua estaltzeko baino ez direla erabiliko.

Tarifak

5. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

6. artikulua.- Arau hau aplikatzearen ondorioz ordaindutako prezioak ez dira itzuliko, itzulketa eskatu bada jada erabilera-aldia hasita dagoenean.

TARIFA-ERANSKINA

IKASTETXEETAKO ARETOAK ETA INSTALAZIOAK (JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BARNE HARTUTA)

| | |
|--|------------|
| I. Erabilera anitzeko aretoa eta ikasgelak: | |
| - Ordu bakoitzeko | 4,54 euro |
| II. Ekitaldi-aretoa: | |
| - Ordu bakoitzeko | 20,45 euro |
| - Ekitaldi-aretoaren erabilera, pianoarekin eta/edo elementu teknikoekin, ordu bakoitzeko. | 25,50 euro |
| III.1. Ikastetxeetako kirol-instalazioak: | |
| III.1.1. Kanpoko kirol-pistak: | |
| - Lehen ordua, aldagelak ere erabilita | 14,79 euro |
| - Bigarren ordua eta hurrengoak, edo lehen ordua aldagelarik gabe | 3,26 euro |
| - Hezkuntza- eta kultur-jarduerak, eguneko | 74,36 euro |
| - Muntatze- eta desmuntatze-lanetako egun bakoitzeko | 74,36 euro |
| III.1.2. Gimnasioa: | |
| - Kirol-erabilera, lehen orduan, aldagelak ere erabiliz, ikastetxe guztietan | 23,92 euro |
| - Kirol-erabilera, bigarren orduan eta hurrengoetan, aldagelak ere erabiliz, ikastetxe guztietan | 7,91 euro |
| - Hezkuntza- eta kultur-jarduerak, eguneko | 85,73 euro |
| - Muntatze- eta desmuntatze-lanetako egun bakoitzeko | 85,73 euro |
| IV. Ikasgela instrumentuarekin, Joaquín Maya Musika Eskolan: | |
| - Lehen ordua | 10,61 euro |
| - Bigarren ordua eta hurrengoak | 4,54 euro |
| Kontserbatorio profesionaletako edo goi-mailako kontserbatorioetako ikasleei % 75eko murriztapena egingen zaie haietan matrikulaturik egon bitartean. | |
| V. Oharra I., II. eta III. epigrafeetarako | |
| Instalazio horiek aparteko jarduerak egiteko lagatzeak berekin badakar udal-langile gehiago aritu behar izatea, dagokien prezio publikoaz gain honako hau ordaindu beharko da langile eta ordu bakoitzeko | 22,85 euro |
| Prezioa % 75 murriztuko zaie irabazi-asmorik gabekoak izan eta Elkarteen Udal Erregistroan izena emana duten auzo-elkarteei, baldin eta, dena delako auzoan ekipamendu publiko egokirik ez izateagatik, Udalak baimendutako jarduerak egiteko eskatu badute erabilera, eta, betiere lokala edo instalazioa libre badago. | |